**Organiza:**
Espiritualidad Pamplona-Iruña
y Biblioteca de Navarra
**Lugar:**
Sala de Proyecciones. Biblioteca de Navarra
Paseo Antonio Pérez Goyena

La primera afirmación que nace tanto de la espiritualidad laica (o no religiosa) como de la filosofía sapiencial es totalmente simple en su verdad: Todo es uno. La milenaria tradición hindú lo ha repetido de manera unánime en el conocido aserto: "Atman es Brahman", que, en su contenido, coincide con la expresión, tan lapidaria como incontestable, de Parménides, considerado el padre de la filosofía occidental: "Solo hay ser", porque "lo que es, es".

Dado que solo hay una realidad, todas y todos compartimos el mismo y único fondo, la misma y única identidad. Cada personalidad es diferente, pero la identidad es común, por lo que, aun siendo diferentes, somos lo mismo. Se trata de una básica, radical y hermosa paradoja: compartimos con todos los seres una igualdad básica que no niega las diferencias.

Esta primera comprensión espiritual hace posible reconocer y vivir, en la práctica, la igualdad. Y ese reconocimiento es el requisito previo que posibilita paz interior, relaciones armoniosas y paz mundial.

En este IX ciclo de conferencias, organizado por la asociación "Espiritualidad Pamplona-Iruña", en colaboración con la Biblioteca de Navarra, queremos poner luz, de manera crítica, en las desigualdades que nos atraviesan y que seguimos perpetuando, como una llamada a superarlas desde la comprensión de nuestra igualdad originaria y radical.


Marga Ferré


Joan Tamayo


Teresa Gaztelu


Sixto Iragui


Jacinto Choza

Martes 3 de marzo, 19:00 h

## LA BRECHA ECONÓMICA ENTRE INDIVIDUOS Y ENTRE PAÍSES

La desigualdad no es un hecho natural, ni se refiere solamente a las diferencias de ingresos o riqueza, sino que es parte de una injusticia estructural, funcional y necesaria para quienes quieren acumular riqueza y privilegios. Y va en aumento. Analizar sus causas exige una doble mirada: entender por qué existen y aumentan las desigualdades entre individuos y, de forma paralela y simbiótica, por qué y cómo se estructura la desigualdad entre países. Analizaremos las causas actuales de la desigualdad (económica, social, política y cultural), desde una defensa inequívoca del valor de la igualdad como pilar fundamental de la construcción de derechos y de relaciones sociales no jerárquicas y, por tanto, no violentas. Una igualdad que, además, es garante de que la libertad exista, es su principio espejo, ya que la libertad sin igualdad material ni de derechos se convierte en privilegio.

Debatiremos sobre qué es la igualdad hoy, un concepto y una práctica que ha evolucionado en el tiempo y que hoy está puesta en cuestión como fuente de derecho. En su defensa, hablaremos y propondremos la construcción de futuros más justos y esperanzadores para personas y pueblos.

**Marga Ferré** es periodista y trabajó como locutora de radio. Actualmente es presidenta de Transform Europe (red europea para el pensamiento alternativo y el diálogo político) y de la Fundación de Estudios Críticos (investigación, estrategia y comunicación para entender y transformar la política del siglo XXI). Escribe habitualmente en *Publico.es* y sueña con cambiar el mundo.

Martes 10 de marzo, 19:00 h

## DESIGUALDADES COTIDIANAS

Es necesario recuperar la autonomía "perdida" como ciudadanos y ciudadanas que compartimos un planeta, siendo responsables de que no colapse ni se autodestruya.

Y para ello es primordial actuar urgentemente desde el espacio más cercano de contacto y de convivencia que tenemos: la comunidad-ciudad, el núcleo que nos aglutina día a día y del cual compartimos todo, aun cuando no seamos conscientes de ello.

El cambio global de este mundo en el que imperan la desigualdad, la violencia y la injusticia ha de producirse desde lo local a lo global.

Y con este horizonte nos acercaremos a los derechos humanos de proximidad: qué son, cómo los podemos defender. Cómo construir espacios en lo local de personas con conciencia, responsabilidad, empatía, solidaridad que trabajen para lo común y abandonen su individualidad, impuesta por un sistema depredador y consumista.

Así enfrentaremos una vida en igualdad, día a día.

**Joan Tamayo** (1956, Terrasa). Abogado, profesor universitario de Derechos Humanos en la Universidad Politécnica de Cataluña. Miembro de la Junta del Instituto de Derechos Humanos de Cataluña y activista por los derechos humanos y sociales.

Actualmente dirige el despacho de abogados ESPAI HUMANA, centrado en la defensa de los derechos humanos, fundado por él hace diez años.

También es fundador y actual presidente del Observatorio de los Derechos Sociales de Terrassa. Es miembro del Grupo de Investigación del Campus de Comunicación de la Universidad de Girona.

Colabora con muchos medios de comunicación y ofrece charlas por toda Cataluña sobre DDHH. Investiga y ofrece nuevas herramientas de trabajo para las escuelas que permitan avanzar en la difusión y aprendizaje de los valores que fundamentan los derechos humanos.

Ha publicado varios libros y actualmente sigue en activo en todos los frentes como abogado, como activista y como profesor.

Martes 17 de marzo, 19:00 h

## LA IGUALDAD COMO EXPRESIÓN DE LA UNIDAD

Es un hecho innegable que los seres vivos somos diferentes unos a otros: afirmar la vida es celebrar y dar cauce a la singularidad de cada cual. A su vez, la diferencia se sostiene en que todos, sin excepción, somos formas sagradas de una sola vida. En esta naturaleza unitaria se basa la igualdad, que no es sino el trato de respeto y justicia que emana del reconocimiento de nuestra dignidad compartida. Si somos diferentes en forma, somos uno en fondo. La conciencia de esta paradoja que nos constituye vuelve imposibles las relaciones de poder.

Ahora bien, estas últimas son una dolorosa realidad cotidiana a la que todos contribuimos activa o pasivamente. ¿Qué hacer ante esta realidad? ¿Cómo abordar las desigualdades? Hagámonos cargo, primero, de las formas introyectadas de discriminación: ¿nos comparamos con los demás, haciéndonos de más o de menos?, ¿necesitamos ejercer poder sobre otros o bien permitimos que los demás lo ejerzan sobre nosotros?, ¿estamos apegados a la comodidad de algún privilegio? Tomemos conciencia de los patrones de desigualdad en cada uno de nosotros y en nuestro entorno. Dicha conciencia sentida llevará a cabo una labor de sanación interior y relacional. Porque la conciencia de la desigualdad ya es igualdad.

**Teresa Gaztelu**, es doctora en Filosofía por la Universidad Complutense de Madrid. Master en Filosofía Contemporánea por la Universidad de La Sorbona. Curso de Formación en Asesoramiento Filosófico Sapiencial de la mano de Mónica Cavallé.

Ha sido profesora en la Universidad Complutense de Madrid (2015-2018) y en la Universidad Pontificia de Comillas (2015-2020).

Actualmente es miembro del equipo formativo de la Escuela de Filosofía Sapiencial, imparte conferencias y talleres sobre filosofía y espiritualidad, y tiene una consulta de acompañamiento filosófico.

Martes 24 de marzo, 19:00 h

## JESÚS: UNA PROPUESTA DE IGUALDAD QUE TRASCIENDE LAS RELIGIONES

Aunque las fuentes que han transmitido a Jesús están escritas bajo el paradigma mítico-dual de comprensión, propio de aquella cultura del siglo I, desde su simbología profunda emerge una visión no-dual de La Realidad que va transpersonalmente más allá de las *formas* parciales en que La Vida se manifiesta (como *la existencia* del yo) y conecta con la esencia de LaRealidad, de LoQueEs, de "Esto", de LaVidaFluyendo (Abbá-Padre en el lenguaje religioso jesuático), donde Todo, incluido el ser humano, Es-Uno, Es-en-Unicidad, y Fluye-en-Unicidad, sin separaciones ni categorías.

En la charla se analizarán denuncias expresadas por Jesús en las fuentes contra la separatidad/desigualdad impuesta por los Sistemas de Dominio (imperantes en su época, pero también en toda la Historia), y su radical llamada para superar esas desigualdades, esas discriminaciones sistémicas por razón de rango/estatus (clasismo económico, social, mental, edadismo), género (sexismo, machismo patriarcal), origen étnico-nacional-grupal (racismo, xenofobia, intolerancia) y creencias (religiosas, ideológicas, existenciales).

Precisamente, la superación de todo dominio, rango, desigualdad y separatidad será el eje de la fundamental proclamación histórica de Jesús, que él denominó "el reinado de Dios": un ámbito en el que sólo reina el Amor haciendo FluirLaVida *indiscriminadamente*.

**Sixto Iragui** (Pamplona,1950) cursó la carrera de Comercio (Profesorado Mercantil). Fue miembro del Cineclub Lux y crítico de cine en la emisora de la Cadena SER en los años 70, al tiempo que estudió teología en el CSET de Pamplona. De 1977 a 2013 fue cura de barrio en Tudela, profesor y periodista. Es cineasta, miembro del Cineclub Muskaria y estudioso y divulgador de la figura del Jesús histórico mediante el método histórico-crítico, que analiza las fuentes que han transmitido a Jesús para dilucidar sus claves, su historicidad y su significado simbólico profundo más allá de su literalidad.

Martes 31 de marzo, 19:00 h

## IGUALDAD/DESIGUALDAD: LA MIRADA DESDE ORIENTE Y DESDE OCCIDENTE

La igualdad y desigualdad en las diferentes culturas y religiones, y especialmente en Oriente y Occidente, vienen dadas por el individualismo determinado por el clima estepario, y el comunitarismo determinado por el clima monzónico.

El clima estepario fomenta más el individualismo porque actuar diferencia más a unos individuos de otros que no actuar. La diferencia puede advertirse comparando a Buda con Abraham, o a Confucio con Moisés, que expresan bien las características de la cultura y la religión de Oriente y Occidente.

En las culturas y religiones orientales todos los seres y todas las vidas pueden tener igual valor en el plano del origen y en el plano escatológico del fin, pero no en el orden histórico institucional. Y lo mismo sucede en las culturas y religiones occidentales. Igualdad en el orden ontológico trascendental (dignidad) y desigualdad en el orden sociológico funcional (diferencias orgánicas).

En Oriente las instituciones civiles y religiosas modifican las igualdades y diferencias de un modo lento y brusco (con la descolonización). En Occidente las instituciones tienen una historia más accidentada en la que tienden a expresar en ellas mismas, en el orden civil y en el religioso, la igualdad escatológica trascendental de un modo más rápido y quizá más violento.

**Jacinto Choza** es catedrático emérito de Antropología Filosófica de la Universidad de Sevilla; fundador y director desde 1982 de *Thémata. Revista de Filosofía* de la Universidad de Sevilla; fundador de la Sociedad Hispánica de Antropología Filosófica (SHAF); fundador y director del Seminario de las Tres Culturas de la Facultad de Filosofía de la Universidad de Sevilla. Fundador de la Sociedad Iberoamericana de Antropología Filosófica (SIAF) y del Seminario Identidad Cultural Latino-Americana (SICLA) desde 2008. Ha participado en numerosos congresos nacionales e internacionales de filosofia y antropologia.

Entre sus amplias publicaciones destacan:
*Conciencia y afectividad (Aristóteles, Nietzsche, Freud), Antropologías positivas y Antropología filosófica, Cartas de la España pobre (1940-1960).*



2026KO MARTXOA

# ESPIRITUALTASUNA ETA BERDINTASUNA

## IX. HITZALDI ZIKLOA "ESPIRITUALTASUNA PAMPLONA-IRUÑA" ETA NAFARROAKO LIBURUTEGIA


Antonio Pérez Goyena pasealekua, 3.
31008 Iruñea (Nafarroa)
848 42 77 97
616 32 58 10


Streamingen bidez ere bai:
@bibliotecasdenavarrana

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · Agenda 2030 · BNL Biblioteca de Navarra · Nafarroako Liburutegia · espiritualidad Pamplona-Iruña

5 IGUALDAD DE GÉNERO
3 SALUD Y BIENESTAR

**Antolatzailea:**
Espiritualidad Pamplona-Iruña
eta Nafarroako Liburutegia
**Lekua:**
Proiekzio Aretoa. Nafarroako Liburutegia
Antonio Pérez Goyena pasealeku

Espiritualtasun laikotik (edo ez-erlijiosotik) eta filosofia sapientzialetik sortzen den lehen baieztapena guztiz sinplea da bere egian: Dena da bat. Milaka urteko tradizio hinduak aho batez berretsi du adierazpen ezagun honetan: "Atman Brahman da". Hori, edukiaren aldetik, bat dator mendebaldeko filosofiaren aitatzat jotzen den Parmenidesen adierazpen solemne eta eztabaidaezin honekin: "Izan besterik ez dago"; izan ere, "badena, bada".

Errealitate bakarra dagoenez, guztiek funts bakarra eta bera partekatzen dugu; hots, identitate bera eta bakarra. Nortasun oro desberdina da, baina identitatea bera da; hortaz, desberdinak izan arren, gauza bera gara. Oinarrizko paradoxa da, ederra eta erradikala: izaki guztiekin oinarrizko berdintasuna partekatzen dugu, desberdintasunak ukatzen ez dituen berdintasuna.

Lehen ulermen espiritual horrek aukera ematen du, praktikan, berdintasuna aitortu eta bizitzeko. Eta aitortze hori aldez aurretiko baldintza da barne-bakea, harreman harmoniatsuak eta munduko bakea ahalbidetzeko.

"Espiritualidad Pamplona-Iruña" elkarteak antolaturiko hitzaldien IX. ziklo honetan, Nafarroako Liburutegiarekin lankidetzan, argi egin nahi dugu, modu kritikoan, zeharkatzen gaituzten eta oraindik ere betikotzen ari garen desberdinkerietan, eta haiek gainditzeko deia egin nahi dugu, gure jatorrizko berdintasun erradikala ulertzearen bidez.

DL NA 329-2026


Marga Ferré


Joan Tamayo


Teresa Gaztelu


Sixto Iragui


Jacinto Choza

Asteartea, Martxoaren 3a. 19:00

## *LA BRECHA ECONÓMICA ENTRE INDIVIDUOS Y ENTRE PAÍSES*

Desberdinkeria ez da egitate naturala, eta ez dagokie soilik diru-sarreren edo aberastasunen desberdintasunei; aitzitik, egiturazko bidegabekeria funtzionalaren parte da, eta beharrezkoa da aberastasuna eta pribilegioak metatu nahi dituztenentzat. Eta areagotzen ari da. Arrazoiak aztertzeko, ikuspegi bikoitza behar da: ulertu behar da zergatik dauden eta zergatik ari diren areagotzen norbanakoen arteko desberdinkeriak, eta, aldi berean eta sinbiosian, zergatik eta nola egituratzen den herrialdeen arteko desberdinkeria.

Desberdinkeriaren egungo arrazoiak aztertuko ditugu (desberdinkeria ekonomikoa, soziala, politikoa eta kulturala aintzat hartuta), berdintasunaren balioa argi eta garbi defendatuta, oinarrizko zutabea baita hierarkiarik gabeko –eta, hortaz, indarkeriarik gabeko– eskubideak eta gizarte-harremanak eraikitzeko. Berdintasun horrek, gainera, askatasuna egotea bermatuko du, haren ispilua baita; izan ere, askatasuna, berdintasun materialik eta eskubide-berdintasunik izan ezean, pribilegio bilakatzen da.

Eztabaidatuko dugu zer den gaur egun berdintasuna, denboran eboluzionatu duen kontzeptua eta praktika baita, eta gaur egun zalantzan jartzen baita eskubide-iturri gisa. Hura defendatzeko, pertsonentzat eta herrientzat justuagoak eta itxaropentsuagoak izanen diren etorkizunak eraikitzeaz mintzatuko gara eta proposamenak eginen ditugu.

**Marga Ferré** kazetaria da, eta irratiko esatari aritu izan da. Gaur egun Transform Europe sareko lehendakaria da (Pentsamendu alternatiborako eta elkarrizketa politikorako Europako Sarea), baita Fundación de Estudios Críticos erakundekoa ere (ikerketa, estrategia eta komunikazioa XXI. mendeko politika ulertu eta eraldatzeko). Aldian behin *Publico.es* egunkarian idazten du, eta mundua eraldatzea du amets.

Asteartea, Martxoaren 10a. 19:00

## *DESIGUALDADES COTIDIANAS*

Beharrezkoa da "galdutako" autonomia berreskuratzea, planeta bera partekatzen dugun herritarrak garen aldetik, gure erantzukizuna baita hura kolapsora edo autosuntsiketara ez eramatea.

Horretarako, funtsezkoa da premiaz jardutea hurbilenekoa dugun harremanerako eta bizikidetzarako espaziotik, komunitate-hiritik, alegia, egunez egun biltzen gaituen nukleoa baita, eta hartan dena partekatzen baitugu, horretaz jabetu ez arren.

Desberdinkeria, indarkeria eta bidegabekeria nagusi diren mundu hau eraldatzeko, tokikotik globalera jardun behar dugu.

Eta jomuga horrekin, hurbiltasuneko giza eskubideak aztertuko ditugu: zer diren eta nola defenda ditzakegun. Nola eraiki tokian tokiko espazioak, non pertsonak kontzientziaz, erantzukizunez, enpatiaz eta elkartasunez lanean ariko baitira guztien ongiaren alde, alde batera utzita beren indibidualtasuna, sistema harrapari eta kontsumista batek inposatua baita.

Horrela, bizitzari berdintasunean eginen diogu aurre, egunez egun.

**Joan Tamayo** 1956ko uztailaren 11n jaio zen Terrassan (Bartzelona). Abokatua da, eta Giza Eskubideen unibertsitate-irakaslea Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan.

Kataluniako Giza Eskubideen Institutuko batzordeko kidea da, eta giza eskubideen eta gizarte-eskubideen aldeko ekintzailea.

Gaur egun, ESPAI HUMANA abokatuen bulegoa zuzentzen du. Berak sortu zuen duela 10 urte, eta giza eskubideen defentsa du ardatz.

Halaber, Terrassako Gizarte Eskubideen Behatokiaren sortzailea eta egungo lehendakaria da. Gironako Unibertsitateko Komunikazio Campuseko ikerketa-taldeko kidea da.

Komunikabide askorekin kolaboratzen du, eta giza eskubideei buruzko hitzaldiak ematen ditu Katalunia guztian. Ikertzen aritzen da, eta lan-tresna berriak eskaintzen dizkie eskolei, giza eskubideen oinarri diren balioak zabaltzen eta ikasten aurrera egiten laguntzeko.

Hainbat liburu argitaratu ditu, eta gaur egun ere fronte guztietan aritzen da, abokatu, ekintzaile eta irakasle.

Asteartea, Martxoaren 17a. 19:00

## *LA IGUALDAD COMO EXPRESIÓN DE LA UNIDAD*

Ukaezina da izaki bizidunak elkarren *desberdinak* garela: bizitza baieztatzeak esan nahi du norberaren *berezitasuna* ospatzea eta hari bide ematea. Era berean, desberdintasunaren oinarrian dago guztiok, salbuespenik gabe, Bizitza beraren forma sakratuak garela. Izaera bateratu horretan oinarritzen da *berdintasuna*; hots, errespetuzko eta justiziazko tratua, gure duintasun partekatua aitortzetik datorrena. Forman desberdinak izan arren, funtsean Bat gara. Gurekin daramagun paradoxa horretaz jabetzeak ezinezko bilakatzen ditu botere-harremanak.

Hala ere, azken horiek eguneroko errealitate mingarria dira, eta guztiok bultzatzen ditugu modu aktiboan edo pasiboan. Zer egin errealitate horren aurrean? Nola heldu desberdintasunei? Jabetu gaitezen, lehenik, barneratuta ditugun diskriminazio-moduez: Alderatzen al dugu geure burua gainerakoekin, eta geurea gutxietsi edo gehiegi balioetsi? Beharrezkoa al dugu gainerakoen gain boterea izatea, edo gainerakoek gure gain boterea izatea? Pribilegioren baten erosotasunari lotuta gaude? Jabetu gaitezen zer desberdinkeria-eredu dauden gugan eta gure ingurunean. Sentitutako kontzientzia horrek balioko du geure barnea eta harremanak sendatzeko. Izan ere, *desberdinkeriaz jabetzea jada berdintasuna da.*

**Teresa Gaztelu**, Filosofiako doktorea Madrilgo Unibertsitate Konplutensean. Filosofia Garaikideko Masterra Parisko Sorbona Unibertsitatean. Aholkularitza filosofiko sapientzialari buruzko prestakuntza-ikastaroa, Mónica Cavallé-ren eskutik.

Irakaslea izan zen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean (2015-2018) eta Comillasko Unibertsitate Pontifikalean (2015-2020).

Gaur egun, Filosofia Sapientzialeko Eskolako prestakuntza-taldeko kidea da, filosofia sapientzialari buruzko hitzaldiak eta lantegiak ematen ditu, eta akonpainamendu filosofikoko kontsulta bat du.

Asteartea, Martxoaren 24a. 19:00

## *JESÚS: UNA PROPUESTA DE IGUALDAD QUE TRASCIENDE LAS RELIGIONES*

Jesus helarazi diguten iturriak ulermenaren paradigma mitiko-dualean daude idatzita, I. mendearen kultura hartan berezkoa zen bezala, baina haren sinbologia sakonetik Errealitatearen gaineko ikuspegi ez-duala sortzen da, Bizitza agertzen den *forma* partzialetatik (adibidez, niaren *existentzia*) haratago doana transpertsonalki, eta bat egiten du Errealitatea, IzanBadena, "Hau", DabilenBizitza (Abba-Aita, hizkuntza erlijioso jesuatikoan) den horrekin, non Dena, gizakia barne, Bat-baita, Batasunean-baita, eta Batasunean-baitabil, bereizketarik eta kategoriarik gabe.

Hitzaldi honetan, Jesusek iturrietan adierazitako salaketak aztertuko ditugu, Menderatze Sistemek ezarritako bereizketaren eta desberdinkeriaren kontrakoak (sistema horiek nagusi ziren bere garaian, baina baita Historia guztian ere) baita hark egindako dei erradikala ere, desberdinkeria horiek gainditzearen aldekoa, diskriminazio sistemikoak baitira, honako hauetan oinarrituak: mailan edo estatusean (klasismo ekonomikoa, soziala, mentala, adinkeria), generoan (sexismoa, matxismo patriarkala), jatorri etnikoan, nazionalean edo taldekoan (arrazismoa, xenofobia, intolerantzia) eta sinesmenetan (erlijiosoak, ideologikoak, existentzialak).

Hain zuzen ere, menderatze, maila, desberdinkeria eta bereizketa oro gainditzea da Jesusek historikoki egindako aldarrikapenaren funtsezko ardatza, hark "Jainkoaren erreinua" deitutako horrena: eremu horretan, Maitasunak soilik agintzen du, eta BizitzaDarabil, *bereizketarik egin gabe.*

**Sixto Iragui** (Iruña, 1950). Merkataritzako karrera egin zuen (merkataritzako irakasle-ikasketak). Lux zineklubeko kidea izan zen, eta zinema-kritikaria SER irratian 70eko hamarkadan; aldi berean, teologia ikasi zuen Iruñeko CSETen. 1977tik 2013ra, auzoko apaiz izan zen Tuteran, baita irakasle eta kazetari ere. Zinegilea da, Muskaria zineklubeko kidea, eta Jesus historikoaren irudia aztertzen eta zabaltzen du metodo historiko-kritikoaren bidez, Jesusi buruzko iturriak aztertuta haren gakoak, historikotasuna eta esanahi sinboliko sakona argitzeko, literaltasunetik harago.

Asteartea, Martxoaren 31a. 19:00

## *IGUALDAD/DESIGUALDAD: LA MIRADA DESDE ORIENTE Y DESDE OCCIDENTE*

Kultura eta erlijio desberdinetan, bereziki Ekialdean eta Mendebaldean, berdintasunean eta desberdintasunean eragina dute klima estepariaoak eragindako indibidualismoak eta klima montzonikoak eragindako komunitarismoak.

Klima estepariaoak indibidualismoa sustatzen du batez ere, norbanako batzuk besteengandik gehiago bereizten baititu jarduteak, ez jarduteak baino. Ezberdintasun hori agerian gelditzen da Buda eta Abraham alderatzen baditugu, edo Konfuzio eta Moises, Ekialdeko eta Mendebaldeko kulturaren eta erlijioaren ezaugarriak ongi erakusten baitituzte.

Ekialdeko kultura eta erlijioetan, izaki eta bizitza guztiek balio bera izan dezakete jatorrizko planoan eta bukaeraren plano eskatologikoan, baina ez ordena historiko instituzionalean. Eta gauza bera gertatzen da Mendebaldeko kultura eta erlijioetan. Berdintasuna haraindiko ordena ontologikoan (duintasuna) eta desberdintasuna ordena soziologiko funtzionalean (desberdintasun organikoak).

Ekialdean, erakunde zibilek eta erlijiosoek berdintasunak eta desberdintasunak poliki eta batbatean aldatzen dituzte (deskolonizazioarekin). Mendebaldean, erakundeek historia gorabeheratsuagoa dute, eta joera dute ordena zibilean eta erlijiosoan haraindiko berdintasun eskatologikoa modu azkarragoan eta beharbada bortitzagoan adierazteko.

**Jacinto Choza** antropologia filosofikoko katedradun emeritua da Sevillako Unibertsitatean. Sevillako Unibertsitateko *Thémata. Revista de Filosofía* aldizkariaren sortzailea eta zuzendaria da 1982tik; Antropologia Filosofikoko Elkarte Hispanikoaren (SHAF) sortzailea da; Hiru Kulturen Mintegiaren sortzailea eta zuzendaria da Sevillako Unibertsitateko Filosofia Fakultatean. Antropologia Filosofikoko Elkarte Iberoamerikarraren sortzailea da (SIAF), eta Nortasun Kultural Latino-amerikarraren (SICLA) sortzailea 2008az geroztik. Filosofiari eta antropologiari buruzko estatuko eta nazioarteko biltzar askotan parte hartu du.

Besteak beste, lan hauek argitaratu ditu:
*Conciencia y afectividad (Aristóteles, Nietzsche, Freud), Antropologías positivas y Antropología filosófica, Cartas de la España pobre (1940-1960).*



MARZO 2026

# ESPIRITUALIDAD E IGUALDAD

IX CICLO DE CONFERENCIAS
ASOCIACIÓN "ESPIRITUALIDAD PAMPLONA-IRUÑA"
Y BIBLIOTECA DE NAVARRA

Paseo Antonio Pérez Goyena, 3.
31008 Pamplona (Navarra)
848 42 77 97
616 32 58 10

También en *streaming*:
@bibliotecasdenavarrana

Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · AGENDA 2030
BNL BIBLIOTECA DE NAVARRA NAFARROAKO LIBURUTEGIA
espiritualidad Pamplona-Iruña
5 IGUALDAD DE GÉNERO
3 SALUD Y BIENESTAR